



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO URRIAREN 3KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.10.03.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 3.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: diru laguntza eskaera.
- 4.-Cornelio Ubiria Leiza jauna: trukaketa eskaera.
- 5.-Euskal Telebista ikusteko aurrekontua.
- 6.-Pellettiki eskola: 2014-2015 ikasturteko egutegiaren onespena.
- 7.-Zizur Nagusiko Udala: bestetan sexo indarkeriaren aurkako mozioa.
- 8.-2015. urtean langabetuak kontratatzeko diru laguntza deialdia.
- 9.- Hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen ordenantza.
- 10.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2014ko irailaren 4an eta irailaren 22an egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

2.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Kontseiluak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Arantzan egingo den Tokiko Hizkuntza-politikaren hirugarren ebaluazioa finantzatzeko.

Kontuan hartuz 2014. aurrekontuan ez dela horretarako aurreikusi partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Orain laguntzik ez ematea eta 2015. urterako uztea.

3.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak aurkeztutako idatzia, Nafarroako Elikagaien Bankurako laguntza eskatuz.

Ikusirik bertze Udalek ez dutela oraindik erabakirik hartu eta bost udalak Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kideak direla.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean aztertzea aipatutako eskaera.

4.-CORNELIO UBIRIA LEIZA JAUNA: TRUKAKETA ESKAERA.

Ikusirik Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako eskaera 6. poligonoko 336. lur zatiaren azalera 1. poligonoko 290. lur zatiarekin trukatzeko, horrela 1. poligonoko 89. lur zatian duen borda ingurua lurra partikularra lortzeko.

Eskatzaileak adierazi du trukaketaren zergatia, helburua eta erabiltzeko arrazoiak hauek direla: iratzia egitea gero bordara sartu gorotza egiteko.

Kontuan hartuz horretarako trukaketa espedientea egitea ez dela beharrezkoa eta eskatzen ahal duela herri lurra erabiltzeko eskaera, kanona bat ordainduz, eta indarrean dagoen ordenantzaren arabera.

Kontuan hartuz horrelako eskaerak suposatzen duen aurrekariak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako trukaketa eskaera ez onartzea aipatutako arrazoiengatik.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

5.-EUSKAL TELEBISTA IKUSTEKO AURREKONTUA.

Arantzako Eguzkialdeko auzoko baserri batzuetan ez da ikusten Euskal Telebista.

Udalak gaia aztertu ondoren eta teknikari batzuekin egon ondoren Otsarrako antenan aldaketa batzuk egitea beharrezkoa dela ikusi du. Hori del aeta, aurrekontuak eskatu dira baino bat bakarra aurkeztu da.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gai honi irtenbidea emateko bertze aukera batzuk ere aztertzea.

6.-PELLETTIKI ESKOLA: 2014-2015 IKASTURTEKO EGUTEGIAREN ONESPENA.

Ikusirik Pellettiki haur eskolako 2014-2015 ikasturteko egutegia.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako egutegia onartzea.

7.-ZIZUR NAGUSIKO UDALA: BESTETAN SEXO INDARKERIAREN AURKAKO MOZIOA.

Ikusirik Zizur Nagusiko Udalak igorritako mozioa. Honen edukia hauxe da:

“7.-HERRIKO FESTETAN ERASO SEXISTAREN AURKAKO TESTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Udaleko Berdintasunerako Batzordeburuak honako akordio proposamena aurkezten du onartua izan dadin:

-Zizur Nagusiko Udalak, emakume eta gizonen arteko parekotasunarekin duen konpromiso sendoarekin bat etorritz, deialdi berezia egiten du 2014ko herriko festak parekotasunean izan eta goza daitezen, festetan ere EZETZA beti EZETZ dela gogoratuz, eta horregatik erabakitzen du honako hau:

-Errespetuan eta tratu onean oinarritutako festen alde egiten du, gune guztiak, festa guneak barne, pertsona guztientzat gune seguruak eta gozamenerakoak izan daitezen.

-Ez da emakumeen aurkako ezein ekintza intoleranterik, ezein eraso sexistarik edo sexu erasorik onartuko.

-Herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen zaie, eta gizonei bereziki, eraso sexistarik, "nahiz eta oso sotil gertatu", ez egiteko eta ez toleratzeko. Emakume eta gizon guztien lana da bitarteko adina paratzea pertsona guztiok berdintasun handiagoko eta errespetu handiagoko festak izaten ahal ditzagun.

-Erabakia Nafarroako udal guztiei eta Parlamentuari helaraziko zaie.

Aho batez onartzen da"

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako mozioa onartzea.

2) Arantzako Udalak erabaki hau Zizur Nagusiko Udalari eta Nafarroako Parlamentuari bidaltzea.

8.-2015. URTEAN LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.

Interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak deialdia irekia dago eskaerak egiteko 2015. urterako.

1887/2014 Ebazpenaren bidez, irailaren 4koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 23ko 233/2012 Ebazpena aldatzen du.

Kontuan hartuz aipatutako oinarriak ,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskaera aurkeztea hiru langile langabe kontratatzeke: peoi bat eta bi garbitzaile hartzeke eskaera egitea 2015. urterako.

2) 2015eko aurrekontuan sarrera eta gastuen ataletan partida bat sartzea proiektu horiek diru laguntzatik kanpoko kopurua finantzatzeko.

9.- HIRIGINTZAKO TRAMITAZIOEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Gai hau hobeto aztertzeke mahai gainean utzi da.

10.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA XEHEKATUA.

. Gai hau hobeto aztertzeke mahai gainean utzi da.

Koldobike Gorostiza andrea joan da bileratik.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 60. ebazpenetik 64. arte).

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

13.-KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIako KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA.

Errenteriako Udalak igorritako mozioaren edukia hauxe da:

“ 2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

1.-Errenteriako Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna, demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Errenteriako Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposiziokin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

2.-Errenteriako Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.

3.-Errenteriako Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.

4.-Errenteriako Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaliko dio.”

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako mozioa onartzea.
- 2) Arantzako Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaltzea.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaïtutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Ander Almandoz Indacochea jn.

